

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4947

AGINDUA, 2017ko urriaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2017-2018 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Hezkuntza Saila ekimen multzo bat bultzatzen dabil derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna hobetu dezaten.

Lanbide Heziketari dagokionez, Hezkuntza Sailak Europako programa hauek finantzatzen parte hartzen du: Erasmus +, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako praktikak egiteko; programa horien bidez, ikasleei aukera ematen zaie praktiken bidezko prestakuntza jasotzeko Europar Batasuneko herrialdeetan. Horretaz gainera, heziketa-moduluak atzerriko hizkuntzetan egitea ere eskaintzen du.

Ekimen horien osagarri, Europa 2020 estrategiaren barruan, ikasleek atzerriko hizkuntzan duten gaitasuna indartu dezaten nahi da, atzerrian praktiken bidez prestatu ahal izateko. Hizkuntzak giltzarri dira ikasleen enplegarritasuna eta mugigarritasuna hobetzeko, enpresek merkatu global batean jardutea eskatzen dutenez gero. Hizkuntzak jakiteak ez luke oztopo izan behar langileen joan-etorri askerako.

Horregatik, Europako Batzordeak hizkuntzak jakitearen garrantzia eta hizkuntzei arreta berezia eman beharra azpimarratzen du; izan ere, hizkuntzak mintzatzeko gaitasuna ezinbestekoa da lehiakorrek izateko.

Hori guztia aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, atzerriko hizkuntza indartzeko programaren deialdia egiten da. Programa hori heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan egingo da 2017-2018 ikasturtean.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– 146.250 euro baliatuko dira agindu hau garatzeko.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez, 40 eurokoa da baimendutako talde bakoitzean emandako ordu bakoitzeko. Guztira eman beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu agindu honen aurrekontu-zuzkidura, ordu bakoitzeko zenbatekoa murriztu egingo da, emango diren prestakuntza-orduen guztizko kopurua kontuan hartuta, baimenduko diren taldeen arabera, diru-laguntzaren guztizkoa aurrekontu-zuzkidurara egokitu arte.

Deialdi honen ondorioetarako, agindu honetako baldintzak edo betekizunak betetzen dituen izango da diru-laguntza jasotzeko baimendutako taldea.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan ahalko dira EAEn lanbide-heziketako heziketa-zikloak emateko baimen ofiziala duten itunpeko ikastetxe pribatu guztiak. Laguntza hauen onuradun izateko, ikastetxe eskatzaileak indarreko arauak bete beharko ditu: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina), Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

2.– Ikastetxe onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituztenak betetzeari dagokionez.

Horrekin lotuta, diru-laguntzaren eskaera aurkeztearekin batera, erakunde eskatzaileak baimena emango dio diru-laguntza emango duen organoari zuzenean egiazta dezan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan azaldutako eskakizunak betetzen dituen ala ez. Nolanahi ere, erakunde eskatzaileak espresuki ukatu dezake baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako eran.

Edozein ordainketa egin aurretik, egiaztatu beharko da ikastetxe onuradunak egunean daudela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez.

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

4.– Ezingo dira deialdira aurkeztu laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzarekin zigortuta daudenak, edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren bat dutenak, ez eta sexu-bazterkeriagatik zigortuta daudenak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrena betez.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduerak.

1.– Lanbide-heziketako zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntza irakastea lagundu daiteke, ikastetxean bertan, eskola-orduetatik kanpo, gutxienez 80 orduz eta gehienez 100 orduz, astean gutxienez 4 orduz eta gehienez 8 orduz, 2017-2018 ikasturtean zehar.

2.– Ikastetxeko irakasleek berek emango dituzte eskolak, ikastetxean bertan. Irakasleek Europako erreferentzia-esparru bateratuko B2 mailari dagokion hizkuntza-ziurtagiria izan beharko dute, gutxienez. Ikastetxeetako zuzendaritzaren ardura izango da baldintza hori bermatzea.

3.– Mintzamenaren komunikazio-gaitasuna landuko da, solasaldiak eta ahozko azalpenak –banaka eta taldean–, eta multimedia-baliabideak sartuko dira eguneroko lanean. Eskola-jarduera horiek eskolaz kanpoko beste batzuekin osa daitezke, hizkuntzaren erabilera sustatzera bideratzen direnekin, alegia.

4.– Nominen bidez justifikatu beharreko ikastaroen gastuek bakarrik jaso dezakete diru-laguntza. Hezkuntza-itunen bideari dagokion ordainketa eskuordetuak ez du estaliko atzerriko hizkuntza indartzeko eskolak emango dituzten irakasleei dagokien ordainsari-kostua.

5. artikulua.– Programan parte har dezaketen ikasleak.

Erdi-mailako edo goi-mailako edozein heziketa-ziklotako itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleek parte har dezakete atzerriko hizkuntza indartzeko programan.

6. artikulua.– Ikasleen izen-ematea, hautaketa eta asistentzia.

1.– Boluntarioa eta doakoa den matrikula bat eskainiko da atzerriko hizkuntzako ikastaroetan, eta asistentzia derrigorrezkoa izango da.

2.– Ikastetxe bateko eskaerak gehiago izango balira bertan eskaini ahal dituen plazak baino, berdintasuna, lehia eta objektibotasuna errespetatzen duen metodo bat erabiliko da hautaketa egiteko. Eskabide-orrian agertuko da hautaketa egiteko modua.

7. artikulua.– Taldeak antolatzea.

1.– Hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 10 ikasle egongo dira, eta gehienez 20.

2.– Hizkuntza bakoitzean, maila bakoitzeko, gehienez, talde bat osatuko da, hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailen arabera: A2, B1.1, B1.2 eta B2.

8. artikulua.– Hizkuntza-ikastaroen ebaluazioa.

Eskolak amaitu ostean, ikastetxeek gogobetetze-inkesta egin beharko diete ikasleei (B3 inprimakia, V. eranskina). Inkesta horren emaitzak ikastaroen ebaluazio-fitxetan jasoko dira, eta, fitxa horiek, inkesten kopiekin batera, justifikazioari erantsiko zaizkio.

9. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateraezinak dira xede bera duten erakunde publikoen edo pribatuen diru-laguntzekin.

10. artikulua.– Datu pertsonalak.

Deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak «Diru-laguntzak eta Laguntzak» izeneko fitxategian sartuko dira, eta fitxategi horren xedea izango da diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea, eta deialdian parte hartzen duten pertsonen haren garapenaren berri ematea. Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute datu hauek tratatu eta argitaratzeko.

Fitxategi horren arduraduna Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza da. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren aurrean balia daitezke. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Hori guztia bat dator datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei buruzko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diete Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

II. KAPITULUA

ESKABIDEAK ETA EMATEKO PROZEDURA

11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Ikastetxeko legezko ordezkariari dagokio eskaera egitea, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari zuzenduta.

3.– Eskabideak eta haiei gehitutako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, ikastetxeak aukeratutakoaren arabera. Era berean, eskaera egin duen ikastetxeak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan (10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea).

12. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Ikastetxe eskatzaileek behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte eskabide-orria (I. eranskina) eta A1 inprimakia (II. eranskina), proposatzen duten talde bakoitzeko.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzak lortzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, esango zaio aurrekoa egin ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.

14. artikulua.– Aurkezpen eta izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute, batetik, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak – Administrazio Elektronikoari buruzkoak–, eta, bestetik, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariak 2006ko otsailaren 9an emandako Ebazpenak, hain zuzen ere, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duenak.

3.– Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta izapide guztiak, <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak> helbidea erabiliz.

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2017/fp_hizkuntzak/y22-izapide/es helbidean argitaratuko da deialdi honen fitxa. Fitxa horren bidez, prozesuan parte hartzea eskatzeko erabileragidak eta jarraibideak lortu ahal izango dituzte erabiltzaileek, eta prozeduraren jarraipena egin ahal izango dute.

15. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzen dituen organoa.

Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria izango da agindu honetan araututako diru-laguntzen organo kudeatzailea.

16. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu guztiek jasoko dute diru-laguntza.

2.– Guztira eman beharreko zenbatekoak agindu honen 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu-zuzkidura gainditzen badu, emateko eskolen ordu bakoitzeko zenbatekoa modu proportzionalan egokituko da, baimendutako taldeei guztira eman beharreko orduen arabera, diru-laguntzen gutzizkoa aurrekontu-zuzkidurara egokitu arte.

17. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean bideratuko dira, eta prozedura hori ebaztea Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari dagokio.

2.– Ebatzitakoa banan-banan jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei bide elektronikoak erabiliz, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>; horrek ez du eragotziko hura Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea publikotasun-ondorioetarako.

3.– Ebazteko eta ebatzitakoa ikastetxe interesdun guztiei jakinarazteko gehieneko epea 6 hila-betekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epea igarota, aipatutako jakinarazpena egin ez bada, interesdunek eskaera ezetsizat jo ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Prozeduraren ebazpenak ez du amaitzen administrazio-bidea, eta gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da haren aurka Lanbide Heziketako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

III. KAPITULUA

ORDAINKETA, ONURADUNEN BETEBEHARRAK ETA JARRAIPENA

18. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, emandako laguntza osoaren % 80, laguntza onartu ondoren ordainduko da, 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainerako % 20a ordainduko da hizkuntza-ikastaroak amaitzean eta zuzendaritzak ongi egin direla egiaztatzean, justifikazioa aurkeztuz 20. artikuluan adierazitako epean eta baldintzetan.

19. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun diren ikastetxeek honako betebehar hauek dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, erakunde onuradunek, esleitzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo hamabost egun naturaleko epean berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

2.– 2017-2018 ikasturteko Urteko Planean sartzea diruz lagundutako prestakuntza-jarduerak.

3.– Agindu honen 3., 4., 5. eta 6. artikuluetako baldintzak betetzen direla ikuskatzea.

4.– Emandako diru-laguntza justifikatzea 20. artikuluan jasotakoaren arabera.

5.– Gutxienez 4 urtean artxibatzea gastuen frogagirien originalak, erakunde eskudunek egiaztatze- eta kontrol-lanak egin ahal izan ditzaten.

6.– Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

7.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikuluko gainerako betebeharrak guztiak betetzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea haiek eskatzen duten edozein informazio, diru-laguntzen xedea fiskalizatu ahal izan dezaten.

8.– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea, besteak beste agindu honen xede diren programen finantza-ketaren izaera publikoari dagokion publikotasuna ematea. Horrekin lotuta, ikastetxe onuradunak ikasleei eta haien familiei jakinarazi beharko die programa hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lagundu duela diruz.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Ikastetxe onuradunek, 2018ko ekainaren 28a baino lehen, <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak> helbidea erabiliz aurkeztu beharko dute dokumentazio hau:

a) Prestakuntza-jarduerak baloratzeko fitxak (B1 inprimakia, III. eranskina), sinaturik. Fitxa bat aurkeztuko da programan parte hartzen duen talde bakoitzeko.

b) Ikasleen asebetetze-inkesten kopiak (B3 inprimakia, V. eranskina).

c) Memoria ekonomikoa (B2 inprimakia, IV. eranskina).

d) Ikastaroak eman dituzten pertsonen nominen kopiak; kopia horiek konpultsatu egingo dira –originalak ikusita–, eta ikastetxeari itzuliko zaizkio.

2.– Artikulu honen aurreko atalean adierazitako justifikazio-aldia baino lehen ordaindu diren nominak bakarrik onartuko dira eginiko gastu gisa.

21. artikulua.– Jarraipena.

1.– Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak jarraipena egingo die diruz lagundutako prestakuntza-jarduerei, Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez, haiek egiten direla bermatzeko.

2.– Baldin eta, ikasturtean zehar, gorabeheraren bat gertatzen bada diruz lagundutako prestakuntza-jardueren garapenean, dagokion Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, komeni bada, egoki irizten dion txostena bidaliko dio Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari, agindu hau betearazteko neurriak har ditzan.

22. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, ebazpena aldatu ahal izango da. Ezinbesteko baldintza izango da baimendutako taldeetako bakoitzean izena eman zuten ikasleen % 60 talde horri guztira dagozkion eskola-orduen % 80ra joatea gutxienez, eta diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko betekizunak mantentzea.

2.– Arrazoia edozein izanda ere, ikastaroaren ordu-kopurua murriztu egiten bada, laguntza ere murriztu egingo da, azkenean emango den ordu-kopuruaren proportzioan, hasieran emandako orduko zenbatekoa aintzat hartuta; betiere, 65 eskola-ordu emango dira gutxienez.

3.– Ondorio horietarako, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren kopurua doitu egingo da, edo, hala egokitzuz gero, soberan jasotakoa itzultzeko aginduko da.

23 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat joko da eta, hala egokitzuz gero, jasotako zenbatekoa gehi dagokion interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio hauekako bat gertatuz gero:

a) Ez betetzea agindu honetan eta hura garatzen duten ebazpenetan xedatutako edozein betebeharrak edo baldintza.

b) Ez betetzea EAEko aurrekontuen konturako diru-laguntzen onuradunen edozein betebeharrak. Betebeharrak horiek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan daude jasota.

c) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako itzulketa-kausaren bat gertatzen denean.

d) Aldi berean erakunde publiko edo pribatuen beste edozein diru-laguntza jaso izana.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Errege Dekretu Legegileak onartutako testu bategina) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko (EAEko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeen eta horiek itzultzearen erregimen orokorra arautzen duena) II. tituluari jarraituko zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditenteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, deialdi honetako laguntzak ez dira emango harik eta kreditu egokiak eta behar bestekoak egon arte Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako aurrekontu orokorretan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi hau administrazio publikoen diru-laguntzak arautzen dituzten printzipioei jarraikiz ebatziko da –publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak–, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritako baldintzetan, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu baitzuen, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan zehaztutako oinarriko araudiaren arabera, eta laguntzei eta diru-laguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorritz; horrez gain, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EAeko Justizia Auzitegi Nagusiari, bi hilabeteko epean. Bi epeok agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 3a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

(*) derrigorrezko eremuak

Eskatzailea*

Titularra

Ordezkarria

Datu Pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena * _____ Telefonoa _____

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena * _____ Telefonoa _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Sexua

Gizonezkoa

Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea *

Postaz

Helbidea * _____ Zk. _____ Solairua _____ Letra _____

PK * _____ Udalerria * _____ Probintzia * _____

Herrialdea *

Helbide elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Ohartarazpenak jasotzeko datuak

Doako ohartarazpen-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Helbide elektronikoa edo mugikorreko zenbaki bat baino gehiago eman nahi izanez gero, puntu eta komaren [;] bidez berezi.

Helbide elektronikoa: _____

SMS: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateraezintasun-adierazpenak

- Erakunde eskatzailea ez da xede eta helburu bereko laguntza edo diru-laguntzarik jasotzen ari administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Atzerriko Hizkuntza indartzeko prestakuntza emango duen irakasleei dagokien ordainsariaren kostua ez dago hezkuntza-ituneko ordainketa eskuordetuaren barne.

Berariazko adierazpenak

Erakunde eskatzaileak:

- Lanbide Heziketako zikloak emateko baimenduta dauden ikastetxeetan atzerriko hizkuntza indartzeko diru-laguntzen deialdia ezagutzen du.
- Hezkuntza Sailaren Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinaraziko dio diru-laguntza emateko baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen baditu edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturengandik.

Beste adierazpen batzuk

Erakunde eskatzaileak:

- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez zaio legez debekatu laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea, batik bat sexu-bazterkeriagatik¹.
- Ez dago sartuta inongo itzulketa- edo zehapen-prozeduratan, EAEko Administrazio Orokorreko edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan prozedura hasi eta oraindik izapidetzen dagoenik.
- Laguntza hauen onuradun izateko arautegiko eskakizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta eskabidearekin batera doazen dokumentuetan jasotako datuak benetakoak dira.

¹ Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetatik seigarrena betez.

2017ko urriaren 16a, astelehena

Lehen aurkeztutako dokumentuak

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Entregatutako eguna	Dokumentua hartu zuen organoa

_____ (e)n, _____ (e)(a)n

(Lekua)

(Eguna)

(Ordez kariaren sinadura)

II. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN FITXA

(fitxa bat beteko da programan parte hartzen duen ikastetxeko talde bakoitzeko)

Ikastetxearen *kodea*: *Ikastetxea*:
Lurraldea:

Talde zk.: Hizkuntza:
 Ikastaroaren iraupena (orduak): Maila:
 Irakaslea:
 Izena emandako ikasle kopurua: Emakume kopurua: Gizon kopurua:
 Ikastaroaren egutegia. Hasiera data: Amaiera data:
 Eskolak emango diren asteko egunak:
 Ordutegia:

Eskatzaileak hautatzeko metodoa:

PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDA

	NAN	Izen-abizenak	Ikasten duen Heziketa Zikloa eta maila	Emakumea (E) / Gizona (G)
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				

2017ko urriaren 16a, astelehena

III. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUERA BALORATZEKO FITXA

(fitxa bat beteko da programan parte hartzen duen ikastetxeko talde bakoitzeko)

Ikastetxearen kodea:	Ikastetxea:
Lurraldea:	

Talde zk.:	Hizkuntza:		
Ikastaroaren iraupena (orduak):	Maila:		
Irakaslea:			
Izena emandako ikasle kopurua:	Emakume kopurua:	Gizon kopurua:	
Gutxienez eskola-orduen % 80 bete duten ikasleen kopurua:			
Ikastaroaren egutegia.	Hasiera data:	Amaiera data:	
Eskolak eman diren asteko egunak:			
Ordutegia:			

	NAN	Izen-abizenak	Emakumea (E) / Gizona (G)	Ikasten duen Heziketa Zikloa eta maila	Asistentzia \geq % 80 (Bai/Ez)
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

Egindako gastuak

Irakaslea	Ikastaroaren ordu kopurua:	Soldataren kostua, orduko	Kostua, guztira

Ikasleen asebetetze-inkestako batez besteko balioak.

Alderdiak	Balorazioa
Ordutegia	
Ikastaroaren iraupena	
Ikastaroaren zailtasuna	
Ikasgelan egindako jarduera mota	
Erabilitako materialak	
Etxean egiteko jarduerak	
Irakasleak hizkuntzaz duen jakintza	
Ikasleek gelan izandako inplikazioa	
Irakasleak ikaskuntzan izandako inplikazioa	
Ikasleen hizkuntza-konpetentziaren hobekuntza	
Ikastaroaren balorazio globala	

Eskalako balioak

1 = batere pozik ez

2 = pozik ez

3 = nahiko pozik

4 = oso pozik

5 = erabat pozik

_____ (e)n, _____ (e)(a)n

(Lekua)

(Eguna)

(Ordez kariaren sinadura)

2017ko urriaren 16a, astelehena

IV. ERANSKINA

MEMORIA EKONOMIKOA

(programan parte hartzen duen zentroko talde bakoitzeko fitxa bat beteko da)

Ikastetxearen kodea:

Ikastetxea:

Lurraldea:

1.– Nominen zerrenda

	Irakaslea	Soldataren kostua, orduko	Ikastaroak hasi eta bukatutako datak	Aurkeztutako nomina kopurua	Ikastaroetan emandako ordu-kopurua	Kostu egozgarria (€)
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
Gastuak, guztira						

2.– Proiektuaren balantze ekonomikoa

Gastuak (justifikatutako gastuen laburpena)							
Talde zenbakia	Hizkuntza	Maila	Ikastaroaren ordu-kopurua	Egutegia. Hasteko data – Bukaerako data	Ikastaroaren ordutegia	Ikastaroa eman den asteko egunak	Zenbatekoa (€)
Behin betiko gastuak, guztira							

Behin betiko diru-sarrerak	
Finantzaketa propioa	
Finantzaketa publikoa	Hezkuntza Sailaren diru-laguntza (deialdi honetan)
	Beste batzuk
	Finantzaketa publikoa, guztira
Erakunde pribatuen diru-laguntzak	
Behin betiko diru-sarrerak, guztira	

BESTE DIRU-LAGUNTZARIK JASO EZ IZANAREN ADIERAZPENA

Ez naiz xede eta helburu bererako laguntza edo diru-laguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

_____ (e)n, _____ (e)(a)n

(Lekua)

(Eguna)

(Ordez kariaren sinadura)

2017ko urriaren 16a, astelehena

V. ERANSKINA

IKASLEEN GOGOBEKETASUN-INKESTA

Talde zk.:	Hizkuntza:	
Ikastaroaren iraupena (emandako orduak):		Maila:
Ikastaroaren egutegia:	Hasiera-data:	Amaiera-data:
Ikastaroa asteko zein egunetan eman den:		
Ordutegia:		

Alderdiak	Balorazioa
Ordutegia	
Ikastaroaren iraupena	
Ikastaroaren zailtasuna	
Ikasgelan egindako jarduera mota	
Erabilitako materialak	
Etxean egiteko jarduerak	
Irakasleak hizkuntzaz duen jakintza	
Ikasleek gelan izandako inplikazioa	
Irakasleak ikaskuntzan izandako inplikazioa	
Ikasleen hizkuntza-kompetentziaren hobekuntza	
Ikastaroaren balorazio globala	

Eskalako balioak

1 = batere pozik ez

2 = pozik ez

3 = nahiko pozik

4 = oso pozik

5 = erabat pozik